

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urtarrilaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Araitz • Joxemari Zubillaga Alzapatas-i, Malloetako argiaren miresleri, omenaldia egin diote
Alberto Ladron • «Odola tomate zukua da euskal literaturan»

Jaso ditugunak

2000 años de mala utilización han
dañado el sistema, por favor

reiniciar



Guti dira urtean zehar eskutitzak eskuz idazten dituztenak. Telekomunikazioen eta ordenagailuen garai hauetan, zaila da bolaluma hartzea eta lagunari lau lerro idaztea. Eguberriak, baina, salbuespena dira horretan, eta etxeak zorion postalez betetzen dira. Hona hemen EGUNKARIAKO Iruñeko ordezkarietan jaso ditugun zorion postaletako batzuk.

Araitz • Malloetako argiaren miresle handienari ohore

Bizi zen bitartean zorotzat zutena omendu dute hil ostean Araitz Bailaran

Egutera eta laiotza desberdintzen ditu eguzkiak. Egutera, argia, eta laiotza, iluna. Iluntasunean bizi arren, argi islak sortzen dituenik bada. Horietako bat, Joxemari Zubillaga, eguzkiak inoiz izan duen mireslerik handiena.



Joxemari Zubillaga Iriarte, *Altzapatas*, bere etxearen parean.

• JOSEBA URRETABIZKAIA

JOXEMARI ZUBILLAGA esanda, inor gutxik ezagutuko du seguruenik, baina Altzapatas esanez gero, burura berehala etorriko zaie arazitarrei, Gaintzako azken bordan bizi zen gizon hura. Artzaina lanbidez, baina filosofoa jaiotzez eta izatez. Arriben egindako erosketak zapi batean bildu, eta makil batera lotzen zituen, gaztetxoenen irribarrea sortuz. Haiek ez zekiten itxura xeble haren atzean Mailoen aspiko azken filosofoa ezkutatzen zela. Izan ere, jakina da xeblekeria erokeriarekin nahastu ohi dela.

Joxemari Zubillaga Iriarte

Gaintzako Urdumil baserrian jaio zen, 1917. urtean, eta bertan hil zen 81 urte zituela. Udan Aralarren eta neguan Gaintzan bizi izan zen, garai-ko artzain askoren antzera. Gizon hau joatearekin batera

gure arima eta esentziaren zati txiki bat betiko galdu dugulakoan, lagun talde batek erabat naturari lotuta bizi zen azkenetako gizaki honi omenaldia egin nahi dio. Horretarako, Joseba Urreta-

*Mendi hontako bizilekua
Pilare gabe egina
Norbera askotan izaten dala
Arotza eta hargina
Harri hutsekin ematen zaio
Alturtsua bikaina
Titulu faltik ez dadukagu
Kapritxosuak bagina.*

*Muitzen ez dan mahaia daukagu
Txaoia bete-betekua
Oain dala mileka urte
Zurgin batek eindakua
Enaiz ohartzen muitzen danik
Asentuz ederrekua
Langile onak badira baino
Ezetz egin holakua.*

*Ipar lainuak egiten digu
Maiz xamarretan bixita
Ordu betetik bestera dago
Bixtik gehiena itxita
Beti hotzakin azaltzen gera
Brusa zaharren bat jantzita
Bost aldiz ondoti aldein azten du
Artzaia aspertu azita.*

*San Migelera egiten degu
Bixita jai igandefan
Guraso zaharren ejenpluari
Seitu eioun ahal degunetan
Berak ez gaittue tratai nahi
Kondizitua txarretan
Ardo puska bat edan det batino
Batere ez niok penetan.*

modurik izan ez dadin, fotolitoak eta gainerako materiala suntsitu egin dute.

Etxean ez zuen elektrizitateirik izan Altzapatasek. Hor-tik datozkio argi naturalarekiko sentipen eta harreman guztiak, eguzkiarekin zeukan benetako adiskidetasuna eta berari zion errespetua. Eguzkiaren kolorea berdea dela esaten zuen, naturaren berdetasun hezea eta bizitzaren ama bera dela sinestuko balu bezela. Gizarte honetako arau eta ohitura asko ezin zituen ulertu, gizarteak bera ulertu ezin zuen bezala; ez zen zibilizazio honetako kide sentitzen, natura eta izadiaren parte, agian. Inguruko jendea harrituta edukitzen zuen besteak beste pazko eguneko zeremoniekin. Guraso, senide eta lagunaren argazkiekin eginitako errezoekin; bere sineskerak zituen, bere arima sakratuak.

Bertsopaperak idatzi ohi zituen Joxemari, eta dagoeneko kondaira ere baden historiak dio, behin San Migelera mezetara joana zelarrik, Basarri eta Uztaipide bertsolariak topatu zituela han. Bertsotan hasi omen ziren eskuz esku, eta saioa bukatutakoan, Basarrik esan omen zuen: «Lastima horrelako bertsolari bikain batek artzain egon beharra, bestela...»

→ Urko Aristi

bizkaiaren argazkiak eta Jokin Sorozabalen bertsoak bildu dituzte. Artelan bihurtu nahi izan dute argazki ilunen bilduma hau (argindarrik gabe bizi denaren etxean ezin argitasun gehiegirik izan). 150 ale baino ez dituzte egin, eta serigrafien antzera, zenbaitu eta notarioak sinatu egin ditu. Ale gehiago egiteko

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Urtearen etorrera zela bide informazio husteria eta uste txar eta arinkeria eta iritzi goibel uholdea nozitu dugu.

Gai mamitsuagoei heldu asmoz, hona hemen zerrenda bat (laburra halabeharrez) zorioneko urtarriaren 1eko ixkinatik haratago so egiteko.

Bat: Burtsa.

Duela 70 urte baino pixka bat gehiago mendebaldeko gizartea, batik bat yankiak, zoratu zen garai hartan jaiotzen ari zizuten abangoardiako trasteekin: irratia, autoa, telefonoa, hegazkina, zepelina (garraioari buruz ari naiz, ez mozkortuen gain), eta abar itxuroso luze bat. Egun, milenium berria estrenaturik eta guzti, distira bera antzeman daiteke mendebaldeko klaneko hainbaten begien

Kezka ilara

ninietan. Internet, bioteknologia, espaziountziak, betiko energia (hau ironia duzu)... dira orduko baliokideak; *geroa hobea emanen dizkiguten zerak.*

Eta egun, orduko giro zalapartatsua aditzen ahal da burtsetako parkeetan. Eta egun, orduan bezala teknologia berriekin loturiko akzioak puzten dituzte behiak klenbuterolarekin egiten den gisa berean. Eta egun, hau gerta ez dadin hartu diren neurriak tarteko, krak!-a gertu izan daiteke. Historiak argitu-ko digu.

Bi: Euskal gizartea XXI. mendearen atarian daga. Diagnostiko arin bat eginez gero gaixo dela ohartzen ahal da adimenak dituen, sobera zorrotz gabe.

Hiru: Lirika modan noizko? Liburudendaren batera jo eta ahalegin zaitzte poesia apala non den aurkitzen: Kontuz giltzurdinekin. Antzerkiak, ele bat bera ere ez.

Lau: sardina bakalau. Orojale garen neurrian, territorio foralean bizi arren, kostaldeko *kontutxuek* gureganatu beharrean gara. Euskal itsasontziak kinka larrian dira eta izanen dira. Neurri txiki, baina erabakior batean, gure eskuetan dago egoera zuzendu ala okertzea, kontsumitzaile garen alde-tik. Gaurtik aitzina nonbait *merluza de san sebastian*, 700 ptas iragarririk so egiten baduzue egizue honako froga hau: galdeiozue legatzari zuzenean ea zer moduz dagoen. Obanboraz mintzatuko da, Namibiako biztanleei dagokiena.

Bera ●

Bigarren txapelaren bila

Hamabortz bertsolari lehiatuko dira, hiru taldetan, bihartik hasita

Bortzirietako 15 bertsolari lehiatuko dira Bortzirietako II. Bertso Txapelketan, bertako bertso eskolak antolatua. Saio guztiak afari eta ostatu giroan egingen dira. Bihar hasiko da txapelketa, Beran.



luz baino hiru bertsolari gehiago ariko dira Bortzirietako Txapelketan. ● JON ABRIL

HAMABORTZ BERTSOLARI, bortz talde, hiru kanporaketa eta finala jokatu dira Bortzirietako II. Bertso Txapelketan. Bortzirietako bertso eskolak antolaturik, bertako bertsolari kanturako aukerak ematea du helburu, eta publikoarekin zuzenean harremanetan paratzea. Horretarako, ostatu giroa eta afa-londoko saioak aukeratu dituzte, joan den urteko esperientzia berritzeko asmoz. Joan den urtean baino hiru bertsolari gehiago lehiatuko dira aurten, bortz taldetan banatuak. Bihar, Berako Jamotenean, bi talde ariko dira afa-london, 21:00etatik aitzinera: Estitxu Arozena, Xabier Terreros eta Erika Lagomak

osatua lehendabizikoa, eta Juan Mari Lopezek, Jose Juan Zubieta *Etxabe*-k eta Ekhine Etxepetelekuk bigarrena. Bi taldeetako sei bertsolariak lesakarrak dira, Lopez izan ezik: sortzez oiartuarra da, baina Lesakan bizi da. Etxaberentzat lehendabiziko aldian izanen da txapelketan parte hartzen duena.

Bigarren kanporaketa hurrengo astean jokatu da, hilaren 14a, Igantzin, iluntzeko 21:00etan, eta, bertan, bertze bi talde ariko dira: lehendabi-

zikoan, I_igo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Oskar Go_i, eta bertzean, Bittor Elizagoien, Julen Zelaieta eta Alaitz Rekondo. Partaide guztiek kantatu zuten iaz, Oskar Go_ik izan ezik, eta Go_irentzat lehendabiziko aldian izanen da jende aurrean ariko dena. Kanporaketa bakoitzetik lehendabiziko sailkatuak jarraituko du txapelketan. Bi horietatik puntu gehien duenak finala jokatu du, eta bertzeak borzgarren taldearen kontra kantatu beharko

du. Biharamunean, urtarrilaren 15ean, Lesakako Saski Berri ostatuan izanen da hori, arratsaldeko 20:00etan. Borzgarren talde hori Xabier Silveirak, Manolo Arozenak eta Saioa Mitxelenak -hori ere lehendabizikoz ariko da- osatzen dute. Kanporaketa horretako garaileak eskuratuko du finaleko bertze txartela. Finala Lesakako Arrano Elkartearen jokatu da, urtarrilaren 28an, arratseko 9etan.

→ Jon Abril



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Lakuntzako mapa topografikoa


Lakuntzako lurralde eta dermio izenen mapa topografikoa osatu eta aurkeztu zuten joan den abenduan. Gai hori aztertu du Maider Betelu kazetariak **Guaixeko** azken zenbakian: «Abendua-ren 3an Lakuntzako Haizea Kultur Elkartearen elkarte horrek bultzatutako Lakuntzako dermioen mapa aurkeztu zuten. Bertan herriko dermio guztien izenak jasotzen dira». Mapa topografiko hori egiteko lan luzea eta gogorra egin behar izan da, baina egileek dioten bezala, «orain lanaren emitza, mapa, eskuan izanda merezi izan du egin den lan gogor guztia».

«Mapa egiteko ideia duela hiru urte sortu zen. Lakuntzar askok komentatzen zuten ez zekizkitela dermioen izenak, eta hauek biltzea ideia ona izango litzatekeela, agian, etorkizunean, izen horiek galduko zirelako. Orduan, HBko zinegotzi eta herriko mendizale batzuk bildu ziren eta guztia komentatu ondoren, mapa batean bertako dermioak kokatzea bururatu zitzaion. Asmo horrekin bat egin zuen Haizea Kultur Elkarteak».

«Guztiak bilera batean bildu ziren. Han erabaki zen mapa topografikoa egin nahi zela, kurbekin. Orduan,

Nafar Gobernuak Lakuntzako mapa topografiko bat bilatu eta bildu zuten. Mapa horren gainean kokatu zituzten dermioen izenak eta beste datu guztiak. Batzuk zinegotziak izateak lana erraztu zuen, errazago lortu zutelako Nafarroako Gobernuako materiala».

«Mapan Lakuntzako lurralde guztia agertzen da, Arbizuko dermioa zati bat, Arruazukoaren zati handi bat, Uharteko beste zati bat eta Aralar mendizerrako zati handi bat. Mapa oso berria da, eta gaur egungo datu guztiak biltzen dira bertan».




Xabier Larraburu

Zaldi Eroa

Takoneran Zaldi Eroa marrazkilariekin egin dut topo. Ia-ia lanik gabe dagoela esaten dit eta jubilatuen ohiturak hartzen ari dela: paseatzea, hiriko obrak ikustea eta abar. «Urteberri on» opa eta milurtekoari buruz duen iritzia eskatu diot. «Zera, —erantzun dit— ditxosozko progreso edo aurrerapen horretan ez dut sinesten. Begira bestela zer nolako progresioa nireal: aspaldian, Nafarroako iparraldeko herri txiki batean euskarazko klaseak eman ahal izateko, gidatzeko karneta atera nuen. Gero gidatu dudak kotxe bakarra Fuerteventurako uhartean erail nuen portu batetik behera, ni barruan nintzela, bota nuenean. Gero lrufean zazpi edo zortzi urte txirridula gainean eman nituen. Orain dela hiru edo lau urte txirridula utzi eta geroztik bizimodu guztiz peatonala egiten dut. Karneta aspaldi kadukatu zen eta ez dut berritu. Txirridula gurpillik gabe dago Jarautako portal batean. Nire eguneroko geografia gero eta txikiagoa da. Asteak ematen ditut Alde Zaharretik atera gabe. Mundua urruntzen ari da. Donostia, esate baterako, autobiarik ez zegoen garaieran baino urrutiago sentitzen dut».

Jokamolde interesgarria iruditzen zaidala esan diot. Idazle naizen aldetik ea esaldi horiek nire artikulurako «lapurtu» ahal ditudan galdetu diot. «Bai horixe — esan dit— eta baita hauek ere: askotan galdetu izan diot neure buruari zertan ari nintzen. Plan zehatzik ote nuen edo zer ostias. Eta erantzuna bera izan dut beti: *niputaidea*. Zipitzik ere ez! Azken batean nire gogoari kasu egin diodala eta besterik ez dagoela aitortu behar dut. Ez naiz oinezkoen militantea edo «eremu urriko biztanleen» aldeko fanatikoa. Gogoeza batek, nagitasun orokor batek mugiarazi nau; edo hobea: geldiarazten nau».

Pausoz pauso Takonerako oreinen gainean amaitzen den harresiraino iritsi gara. Orein pilo bat daude, emeak, harrak, kumeak. «Jubilatuak, bereizteko, izenak eman dizkiete —esan dit gure marrazkilariek—, Kepa, Mikel, Peio. Begira, horiek Mikelen kumeak dira denak, bera da aurten nagusia eta». Gure ondora hiru aitona zahar hurbildu dira. Pena pixka bat ematen dit orain Zaldi Eroak. Bere etxetik 300 metro exkaxetara dagoen gazte hau eta, hala eta guztiz ere, bere geografian mugetara jada iritsi dena. Triste da. ●



Gutaz opit dira


Pizturik dirau Eguberrietan zorionostalak bidaltzeko ohiturak

Ez zaigu eskuz idaztea ahaztu, baina geroz eta guti egiten dugu. Gutu dira urtean zehar eskutitzak idazi dituztenak, urruti dauden lagunekin komunikatzeko bestelako bide lasterragoak baditugu eta. Dena de oraindik baliatzen dira Eguberrietako zorion postalagunei, bezeroei eta lankideei onena opatzeko.

Zorionak
eta milurte berri on
Felices fiestas

Konpromisoa, iradipena eta errealismoa gara! Berriari aurre egiteko, burburia, eta iraketa irateagatik, gurlona den garala!
Compromiso, esperanza y realismo para un tiempo nuevo, cercano, común por deseo.

elkarri



En la confianza de que la paz, la alegría y la felicidad reinarán entre nosotros en las próximas fiestas de Navidad y en el año 2000
¡FELICIDADES!

Alfredo Glez. Echaman
Director General de Interior
Gobierno de Navarra.

EGUBERRIETAKO POSTALAK BEREZ GAUZA arraroa dira. Hori dela eta, jaso bezain pronto, agerian paratzen ditugu besteek ikus ditzaketan lekuren batean: atean, mahai gainean, Jaiotzan edo Eguberrietako pinuan. Guk ere jaso ditugu. EGUNKARIAREN Iruñeko ordezkartzan jaso ditugun zorion postalaren aukeraketa ttiki bat bildu dugu orrialdeotara.

Garalarekin bat eginez, Eguberrietako irudiak askotan ikusten dira zorion postaletan. Iruñerriko *mankomunitateak* kolore biziko postal elurtsua bidali du. Oso ohikoa da Epifaniaren irudi erlijiosoak agertzea ere zorion postaletan. Zangozako *Misterio de Reyes* elkarteak, nola ez, Bibliako pasarte hori aukeratu du bere postala ilustratzeko. Euskal Herrian badira zorion postal tradizionalak, edo horren kutsua dutenak behintzat: Maria eta Josef baseritarrez jantzita daude, haurtxoa lo dago, eta haien gainean *euskal* letrez osaturiko «Zorionak» argitsu bat azaltzen da. Horrelakoa da *Muthiko Alaiak* peñak igorri diguna.

Unicefeko postalak askok erabiltzen dituzte; horiek izango dira erabilienak, apika. Beste batzuk onegintzako beste erakun-

(...) Canto, río, con sus aguas:
De piedra, los que no gritan.
De piedra, los que no ríen.
De piedra, los que no cantan.
Yo nunca seré de piedra.
Gritaré cuando haga falta.
Ríeré cuando haga falta.
Cantaré cuando haga falta.

Rafael Alberti

Pamplona, diciembre de 1999
Un nombre de la Escuela Navarra de Teatro, nuestros mejores deseos para el año 2000.

Maria F. Sagüera (DIRECTORA ACADÉMICA)
Marta J. Sagüera (DIRECTORA ADMINISTRATIVA)
Javier Pérez Eguaras (DIRECTOR TÉCNICO)

de batzuetara jotzen dute. Donapea institutukoek, adibidez, salear mision postal erabili dute. Badira margolari historikoen pinturak aukeratzeko dituztenak ere: esate baterako, Nafarroako Emakumearen Institutuak Michelangelo Buonarrotiren *Madonna* haurrarekin margolana hautatu du euren destorik onenak opatzeko. Miguel Sanz lehendakariak, berriz, Iruñeko katedralean dagoen Epifaniaren inguruko margolana hautatu du. Kasualitatez edo, Nafarroako Aurrezki Kutxak margolan bera hautatu du bere zorion postalera. Iruñeko alkate Yolanda Barcinak, aldiz, diseinuaren aldeko apustua egin du. Azala metalizatu batean, 1999 eta 2000 urteen arteko jokoa egin du. Barnean, Iruñeko Agustindarren komentuan dagoen XVIII. mendeko jaiotzaren argazki bat dago. Azalean, beraz, diseinua, eta barnean, betikoa.

Zenbaitzuek urtean zehar kontu bati eskainiriko arreta eskertzen dute postaletan. Konparazio batera, Nafarroako Errege Etxeak bidaliriko postala Beaumonteko dukeak berak sinatu du. Beste batzuek publikitate postalak bidaltzen dituzte euren burua iragartzeko. Jaso ditugun guzien artean



FAMILIA FOIX-ALBRET ~ Zorionak


Egun karia
Albert
De deseos unas felices
Pasamos 2.000 años
ese tiempo
Ducque de Beaumont
Iruña Diciembre 1999

aipatzekoa da La Montañesa etxeak bidalitakoa. Postalak pisu baxuko autobus artikulatu baten itxura du, eta bidaiarien artean Jesus, Maria eta Josef daude, baita estralurtar bat eta bi gamelu ere.

Deseoen eta eskaeren sinbolo dira zorion postalak. ACE estudio grafiko sortzailetik bidali digutenak honako mezu informatikoa biltzen du gerra iheslari batzuen argazkiaren gainean: «Erabilera kaskarreko 2000 urtek sistema hondatu dute. Mesedez, berrabiarazi».

Barneko mezuei dagokienez, batzuk orjinalak dira, hau da, postala bidali duenak eskuz idatzi du mezuren bat hartzailearen gozamenerako. Beste batzuek mezu estandar hotza dute inprimaturik. Eta beste batzuk erdibidean gelditzen dira, eta mezu hotzari beste beroago bat erantsen diote. Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritzako buru Alfredo Gonzalez Echarren jaunak beste talde bat sortu nahi izan du. Eskuz idatzitako mezu orjinal bera inprimatu du bidali dituen postal guzietan.

Eman nahi duten irudiaren arabera aukeratzeko beste batzuek bidaliko duten postala. Osasuna futbol taldeak «Aupa Osasuna!» handi bat opa digu; Elkarr mugimendu sozialaren postalean, izar hori bat ageri da zurri-beltzeko zeru batean; eta Gurelur talde



Desde GURELUR of
deseamos felices fiestas
Tofu

ekologistak ipurzuri hori baten marrazki batekin irudikatu du postala.

Jasotako postalaren inguruko errepasso labur hau bukatzeko, Nafarroa Kitrol Elkartearen postala aukeratu dugu. Hauxe dio, 1958ko txango baten argazkiaren ondoan: «Bukatzen ari den mende honen erdian», Maurice Herzog Annapurnaren gailurrera heldu zen, Himalayako lehen zortzimilakoa. Ekintza gogoangarri hura biltzen zuen liburua bukatzen ari zelarik, zera idatzi zuen: «Gizakien bizitzan Annapurna antiz dago», Nafarroa Kitrol Elkartearen gure lorpenen gaineko hausnarketa egiten dugu eta, XX. mendeari bukaera emanen dion urtearen altxinean, erran-dezakegu guretako ere geroan Annapurna antiz egonen dela.

Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juan Zumarraga: lehenengo euskal testu luzearen egilea (1537)

Aurtengoa hagitz nekoso datorkiguke Gaztelako Carlos I.a jaioren zeneko bosgarren mendeurrena dela eta; ez gaitez haserre, ordea, eta gainera datorkigunetik ere gure interesekorik atera dezagun; euskara apurak ikasi ere ikasi omen zituen enperadoreak euskaldunak bereziki aukeratzen zituen funtzionari, eta halaxe egin zuen Mexikoko lehenbiziko gotzaina izendatu behar izan zuenean, pertsonalki ezagutzen zuen Durangoko Juan Zumarraga hautatu baitzuen garrantziko postua betetzeko.



Juan Zumarragari buruz daukagun biografiarik hoberena, oraino eta tamalez, Joaquín García Ikazbaltzeta mexikarrak 1881.ean ondu zuena dugu, hots, *Biografía de don Fray Juan de Zumarraga, primer obispo y*



arzobispo de México, egun eskuragarriago dena Austral argitaletxeak 1952.ean atera zuenetik. Mitxelenak jada aipatu zigun García Ikazbaltzetaren lana, besterik agertu ezean lanik egokientzat, alabaina, zaharkitu oso eta pasa den mendeko ikuspena baxalotik eginga, beharrezkoa dugu Zumarragaren bizitza eta ekarpena argituko digun ikerketa sendoagoa, areago euskal letretan berebiziko garrantzia daukan lehenbiziko testigantza idatzien egilea den aldetik.

Durangon 1468.ean baino lehenago jaioa. Arantzazun sartu zen frantxikotar, Valladolid aldeko Abrojoko komentunagusia izan zelarik. Ezagun da sorgin eta inkisizio aferetan esku-hartze zuzena izan zuela Nafarroan, alabaina esku-hartze honen noraino helmenak zehazki argitu gabe badirau. Gaztelako Carlos I.ak sortu berria zen Mexikoko apezpikutegirako gotzain izendatu zuen Zumarraga 1527.eko abenduaren 12an, ondotik ere, bestelako eliz goi karguetarako aukeratua izan zelarik, esate baterako, 1535.eko uztailaren 25ean Mexikoko Inkisidore egin zuen Ofizio Santuko Inkisidore Nagusia zen Alvaro Manriquek, eta 1547.ean Paulo III.a Aita Santuak Mexikoko lehenengo Artzapezpiku egin zuen, zendu baino urte bat lehenago hain zuzen. Esan izan da Zumarraga indiarren defendatzailea izan

zela, eta ezin da ukatu, bere neurrian, orduko konkistatzaile arrunten ohiuren aldetik halaxe izan zela, eta halaxe frogatzera datoz Mexikoko Lehenbiziko Audienciazirekin izan zituen tirabira mingotsak oro, alabaina ez zuen zalantzarik izan erlijio kristauak agintzen dituenetik gehiegi hastantzen zirenak su arazgarrian kupidagabeki kiskaltzeko.

Mexikoko eliz-historiografian Zumarragak izan zezakeen garrantziaren handia gorabehera, geurean beste arrazoiengatik ezagun dela gauza jakinda da, eta dudarik ez dago, arrazoi honen txikitutasunak, hau da, Europako bazter ahantzi batean oraino harrigarriki mintzodan hizkuntza ziztrin batean gutun zatia izkiriari izan gahiago balio izan duela gure miresmen, oroitzapen eta hurbiltasun afektiboa lortzeko artzapezpikutegi handi baten lehenengo burua izan eta santu ospetan hil izanak baino.

Zumarragaren testu famatua 1537.eko otsailaren 15ean sinatua da, hau da, Etxepareren liburua atera baino zortzi urte lehenagokoa, eta, beraz, euskaraz idatzirik dugun testu luzerik zaharrena da. Honen berri eman zigun lehenbizikoa Enrique Otte izan zen - «Juan de Zumarraga, vasco», *Les cultures ibériques...*, Paris, 1979-; Ottekerak, Tovarrekín eta Mitxelenarekin batera, testua eta honen iruzkin filologikoa eskaini zigun beranduago - «Nuevo y más extenso texto arcaico vasco», *Euskera*, 1981-, baita Sarasolak ere - «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU*,

1983-. Berrikiago, Koldo Zuzok apailaturiko edizio berria badugu, Durangoko Etxezarreta Jauregian 1998.eko ekainaren 25ean, Zumarraga hil neko 450. urteurrena gogoratzeke antolaturiko programaren barruan emaniko hitzaldia alegia - *Fray Juan Zumarraga eta Euskara*, Durango, 1998-.

Zumarragaren gutuna Katalina Ruizek jaso zuen, Iñigo Martínez Arrazolaren alarguna eta Muntzarazko dorrearen nagusia zenak alegia. Besteren artean, idazkiaren gai nagusia honen alaba eta Santxo García Larrazabalen arteko ezkontzaren gorabeherak zehaztea zen. Santxo García Larrazabal Zumarragaren beraren iloba zen, eta Mexikon bertan zegoen; Katalina Ruizek onartzen bazuen, bere alaba Mariak Mexiko aldera joan beharko zuen. Gutunaren zatirik nagusia Zumarragak diktaturik eta beste norbaitek idatzirik da, alabaina, bukaeran dagoen euskarazko pasartea gotzainak berak idatzia da. Harrigarria gerta daitekeen arren, Euskal Herrikan kanpo emandako urteak ez ziren eragozpen handirik Zumarragak euskara nasai eta osasuntsu erabiltzeko, eta Mitxelenak Zumarragaren sintaxia azpimarratu zueno, Zuzoren aburuz aski argi da Zumarragaren euskara Durangoko euskara bera dela, zaharkitua, baina mendebaldeko euskalkien ezaugarriak arras ongi erakusten dituen: «Orayn bada ene arrebea deunczua alaan yçango çara paradisuan alcarr dacuscula. Bidaletan deusudaz Sancho Garcjagaz onen yçenean doaçala gogoangarrjac. Plater bi, jarra bat, calderetachu bat eta taça conteacaz. Alaba orrendaco orren esposo onec bidaletan deusaz urra catea eta lau erestun ta joyela yru oe onac».

etorri ahalean

Patziku Perurena



Kurrilo bihotzekoak! (edo perukurriladak)

BI MILA URTE BETE omen ditu gaur kristandadeak, eta hau zalaparta gurea! Bi mila urte gizatuz, bi mila urte oinaze, bi mila urte neke, eta zertarako? Eta honetarako! Bo, bo!...

Gizarte aberetu honetako iskanbilari bizkar eman, eta atzeko leihora atera naiz, gauen gauerdian. Hodei eta lanbro artean, mintziu galdu batzuk aditzen dira, ilenbe isilean, tarteka: kri... kra... kro... Ixo! Kurriloak! diot neure kolkorako: *zuek sikira beti bezain xalo segitzen duzue*. Aluak! Liluratu egin naute, eta M. Indabururen pasarte xalo hartara jo du nere bihotzak segituan:

Negubidean, lerchunac dirade sabieonac, letrac moldatuz, eldu diraden urteco, historiac eta sucesuac contactuz, bacarric sorguñec ta agoreruec aitzzen baittuzte. Biñon labrador igno-rantia nic galdeguiten dut: "cein lenguañaz esribitzen dute? Escuaraz, españolez, latinez edo griegoz?"

Auskalo, bereberez agian. Izan ere, herri afrikar askotako sineskeran, hitzaren sorrera gorpuzten baitu kurriloak. Banbararren pasarte epifaniko batek honela dio: *Hitz ororen sorburu da kurriloa. Kurriloak berak esaten du: "Nik egin dut hitza"*. Hala kurriloak, bere lumajeagatik, bere karrankagatik, eta bere amodio dantzagatik, hitzaren hiru berezkotasun funtsezkoenak bereganatzen ditu: *edertasuna* (hegazitirik apainenetakotzat baitaukate), *soinua* (bakarra baita, diote, garrasi egitekoan doinu aldaketak egiten dituen), eta *mugimentua* (kurriloren dantzak, amodio garaian, ikuskizun liluragarria eskaintzen baitu). Horregatik guztiagatik diote afrikarrek, kurriloa plagiaturik ikasi genuela gizakiok hizketan.

Ez dakit zergatik, afrikarren sineste horrek, harako *Pero Grullo* gaztelar hura ekarri dit

gogora. Jose Godoy jaunak honela dio hartaz: *"Este personaje aparece como testigo de escrituras de 1213 y 1227 del becerro de Aguilar de Campo. Coetaneo y coterraneo suyo era un Pedro Mentiras, con quien debio formar antitesis, si es que se trata del que se ha hecho famosa la naturalidad de sus verdades"*. Zena zela, horra hor ere 'Kurrilo' izengoitia, begien bistako egien salatariak. Ez ote zuen 'Grullo' bakan hark, Afrikako sineste zahar harekin lokarriren bat izanen? Larri ibili.

L. Dassancek eta J. Elissalde beren *Euskal Herriko Hegaztinak eta Choriak* bilduma xarmagarrian, hala diote lertsunaz: *"Hemen gaintzi ez da maiz hegaztin haundigarrik ikusten. Negu hastean lerro-lerro-lerro, ikusten dugu andana ederrik, kru-kru eta kru-kru zerueta doazila. Berdin ibilki dire gauaz. Hargatik, arras unhatuak edo errebelatuak ez badire, ez dire gure herrietan hanitz gelditzen"*.

Egia adierazgarri dut azken pasarte hori: *"Arras unhatuak edo errebelatuak ez badire, ez dire gure herrietan hanitz gelditzen"*. Ni izan zen haur haren belarria testigu: *"Bart arratseko ekaitzak in galduta bertan gelditua, kurrillo bat omen dabilla Aitasemegin, Berazkunen, Arktiskillen, Gorriztaranen, alde batetik bestera izutua"*. Eta halaxe zebilela, Julianek tiroz Benaisoron bota zuen huraxe ditz bertatik bertara lurtean ikusitako kurrilo bakarra.

Eta kurrilo bakarren galdu horri, ez dakit zergatik, neure buruaren eta neure guzizko hiltzen edo idazle horien traza hartzen diot. Eta behar bada, nere tokaio zahar Peru 'Kurrilo' hura ere, halakoren baten irudira sortua izan zitekeen.


Oi kurrilo bihotzekoak! Eskerrak sentipen ederrok berpizteagatik! Sekulan ez nuen usteko neure ofizio perukurrilo honetan maisulehen izanak zintuztedanik.

Ziria

• Motxorrosolo •


Gatopardo

GOBERNU ORDEZKARIARENASKI ONGI IRUDIKATZEN DU GATOPARDORENA. Betiko moldeak iragan *gardena* duen elgoibartar horrena. Biografia merezi du. Bakar bat animatur gero, liburu arrakastatsua gerta daiteke.

Alberto Ladron  Idazlea

«Odola tomate zukua da euskal literaturan»

Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako Literatur Lehiaketan lehen saria eskuratu berri du Alberto Ladron gazte iruindarrak, Zurrumuruaren estrategia lanarekin, narrazio laburren sailean. Literaturaren munduan hasi berria da, baina aurrera jarraitu nahi du.



soslaia

UDALEKO LEHIAKETAKO EPAI-mahaiak Alberto Ladronen idazlanaren kalitatea nabarmendu zuen bereziki sariak banatzerakoan. Horrek «izutu» egiten duela aitortu digu idazle gazteak. Berarekin mintzatu gara literaturaz eta mundu horretan lortu nahi duenaz.

■ **Iruñeko Udalak egile berrientzat antolatzen duen lehiaketa irabazi berri duzu idatzi duzun bigarren lanarekin; pozik?**

Bai, oso pozik. Aurretik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutakora aurkeztu nintzen, eta hura ere irabazi egin nuen. Zerbaite idazten nuen lehen aldia zen. Zorte handia izan dut eta oso kontent nago.

■ **Idazten jarraitzeko asmoa daukazu?**

Bai; dagoeneko hasi naiz istorio gehiago idazten. Narrazio laburrak dira batzuk, baina baliteke zer edo zer luzeagoa ere egitea. Baina hasi besterik ez naiz egin, oraindik ez dakit zer aterako den. Hala ere, pozik naiz hasitako bide berriarekin. Idaztea oso dibertigarria da.

Alberto Ladronek irakasletarako ikasi zuen Iruñean, eskola katedralaren ondoan zegoenean, egungo Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren egoitzan. Irakasle ikasketak egin ondoren, psikologia ikasi zuen, eta, bukatu zuenetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten du lan, bedel gisa.

Irakurtzea betidanik atsegin izan du Alberto Ladronek. Eta denetarik irakurtzen du. Idazle guztien artean, hala ere, egungo idazle amerikarrak ditu, agian, gustukoak. Idazteari iaz ekin zion 32 urteko gazte iruindarrak, eta ezin hobea izan da hasiera: bi idazlan idatzi ditu, bi lehiaketetara aurkeztu, eta bietan lehen saria eskuratu du.

Idazten hasi eta gero, ez du gelditzeko asmorik, eta hainbat istorio berri osatzen hasi da dagoeneko. Bere ustez, lan bat ona bada, lehenago edo geroago argia ikusiko du. Lehiaketetara aurkezten jarraituko duela dio, eta argialetxeetara jotzeko aukera ere ez du bazterten.

■ **Lehiaketa irabazi ondoren, zure obra argitara eman du Udalak. Lehiaketan balio horretan dartzala uste duzu?**

Hori garrantzitsua da, baina gero inor gutxik irakurtzen ditu liburu horiek, ez baitituzte batere promozionatzen. Eta hori ez da soilik Udalak plazaratzen dituen lanen arazoa. Argialetxeek ere lan gehiago egin beharko lukete argitara ematen dituzten lan guztiak promozionatzeko. Nire ustez lehiaketan balio nagusia, garrantzitsuenak, egilei aurrera jarraitzeko ematen dieten adorea da. Idazten jarraitzeko adorea eman didate lehiaketek.

«Literatur lehiaketek duten balio nagusia egile berriei aurrera jarraitzeko ematen dieten adorea da, nire ustez»

■ **Lehiaketako epaimahaiak bereziki nabarmendu zuen zure lanaren kalitatea.**

Bai, eta horrek izutu egiten nauela esan beharra daukat. Erantzukizun handia da, baina era berean, pozgarria, batez ere nire bigarren lana delako.

■ **Iruñeko Udalaren lehiaketa gaurkotasan handiko gai bati buruz idatzitako lanarekin irabazi duzu. Tratu txarrak jasaten dituen emakume bat da protagonista.**

Bai, baina egoera hori bigarren mailako kontua da. Garrantzitsuenak emakume horrek egoera horretatik ateratzeko asmatzen duen sistema da, hau da, zurrumuruaren estrategia erabiltzen du senarra bere ondotik urruntzeko. Gaur egungo istorioa da, oso urbanoa, baina aurrekoa, NUPeko lehiaketara aurkeztu nuena, bestelakoa zen, Erdi Aroan kokatutako istorioa, alegia.

■ **Edozein gai ukitzeko prest zaude, beraz?**

Bai. Bi lan horietan bortizkeria da ezaugarri komuna, benetako bortizkeria. Horren falta sumatzen dut euskal literaturan, benetako grina. Behin Aingeru Epaltzari entzun nion egungo euskal literaturak falta zuela odol eta garagardo gehiago. Garagardo ez dakit, baina odolarena bai, ados nago. Odola tomate zukua da euskal literaturan. Oso motela da, eta aspergarria. Ni hasi berria naiz, baina irakurle naizen aldetik daukat iritzi hori. Beste literaturatan aurkitzen ditudan gauzak ez ditut gurean aurkitzen.

■ **Literatura motel horren ondoan, zer motatako literatura aldarrikatzen duzu zuk?**

Literaturak gauzak diren bezalakoak agertu behar ditu, nire ustez, modu erakargarri batean. Bortizkeria, amodioa, agertzen den guztiak benetako izan behar du, ez harri-kartoizkoa.

■ **Atsegin duzun ezer ez du euskal literaturak?**

Bai, finean, denetarik dago. Bernardo Atxaga, adibidez, munstroa da, benetako klasikoa. Aingeru Epaltza ere bikaina da nire ustez. Baina bi horietaz gain, ezer gutxi dagoela uste dut. Egia da gehiegi ere ez dudala bilatu, hasieran hartu nuen dezepzioa oso handia izan zelako. Euskaraz itzulpenak irakurtzen ditut batez ere.

■ **Zein da euskal literaturaren arazo nagusia zure ustez, hau da, zergatik da hain motela?**

Hain murriztua izatea da euskal literaturaren arazo nagusia, nire ustez. Gainera, ausardia falta dago; errazagoa da ezagutzen duzunaz idaztea arriskatzea baino. Euskal literaturan errepikatu egiten dira gaiak, baserri giroko istorioak, gerra zibila eta egungo arazoak ateratzen dira beti liburuetan. Abentura edo fantasiari buruz, ordea, ez da idazten. Atxagak ere hemengo arazoei buruz idazten du, baina oso modu ezberdinean.

→ **Eduarne Elizondo**



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

Aitorren opariak

Aitorren gurasoak sinesgabeak dira. Horixe aldarrikatzen dute behintzat. Baina ezin ihes egin eguberrietako bestei. Sozialistak ziren Aitor jaio zen arte. Baina orain kontsumismoaren atzaparretan erori dira babesgabe, Aitorren bortz urteek jostailuak eskatzen baitituzte. Bere burmuinetan gelditzen den ezkerzaletasun arrastoei jarraiki, Aitorren aitak uste du haurrak ez dituela opariak bat-batean jaso behar, modu progresiboan baizik.

Lehenbiziko oparia gripe moduan jaso du Aitorrek Olentzero egunean. Gaztea denez 40 gradutik 36ra berehala pasa da eta abenduaren 28an, goizean, pailazoen zirkua ateratu du kutxa gorri handi batetik: Popi eta Zaratrako, aurrekontuak eta ekilibristak. «Ene!», oihukatu du Aitorrek. Egun berean, gauez, Playmobil kotxe batek eztanda egin du bere logelari. Osaba karlistoak oparitu dion kit bereko poliziek kotxe barruko biktima terrorista bilakatu eta atxilotu dute. «Akordatu da», erran du osaba gogoan.

Hurrengo egunean, asteartearekin, bi panpina defuntu ateratu ditu lazo gorridun hilkutxa batetik. «Haral». Marilyn Mansonen zalea den lehengusuaren oparia ezbaierik gabe, pentsatu du amak. Bi hildako dituenek, Aitorrek horietako bat baztertu du eta bertzeari atentzio guztiak eskainiko. Bibote beltzeko Furby panpina hitzunak bisita egingen dio, gainera. Sabelean sakatuz gero, «koherenztzia» dio panpinak.

Asteazkenean asko pentsatzeko joko bat jaso du Aitorrek bere izeba irakaslearen partetik. Aitor saiatu da jolasten, baina ez du deus ulertzen. Nafarroa, IU-EB, EPK eta Lizarra-Garazi hitzak lotu behar ditu Papa Noelen antza duen panpina baten laguntzaz, baina zaila da oso.

Igandean hartu du Aitorrek bere gurasoaren oparia, etengabe eskatu zuen hura: Action Man eta bere lagunak. Kutxan agertzen dena irakurri eta liluratu zaigu Aitor. Nazioarteko terrorista batzuek garapenaren errepidea saboteatu nahi dute. Action Manek bere lagun berdeen laguntzaz ekitntza kriminala eragotziko du. Jostailu honen etekinen %10 Mugarik Gabeko Txakurren Salbatzaileak GKEak jasoko du. «Aaft!!!», Aitorrek.

gure aukerak

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Ados Teatroak *Manolito gafotas* lana antzetzuko du, gaur eta bihar, Gaiarre antzokian, 20:00etan.
- **Antsoain:** Bihar, *Eguberrietako izarrak* ikuskizuna eskainiko dute, 17:00etatik aurrera, kiroldegian. Hiru zatik osatzen dute ikuskizuna: *Aladino eta Notre Dameko konkorduna* haurrentako antzerki majikoa, *Rulo, Hula Hop, Monociclo, Hervules* ikuskizun fantastikoen besta, eta *Musika, magoak, arlekinak* pailazoen festibala.

KONTZERTUAK

- **Ororbia:** Bihar, arratsaldeko zortzietan, Yerbabuena seikotea Kultur Etxean izanen da jazz eta bolero gaua eskaintzeko.
- **Etxaleku:** Bihar, larunbatarekin, kontzertua izanen da ostatuan, 23:00etatik aurrera, Errezetak rock taldearen eskutik.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Asteazkenean, Zaldiko Maldikon, 20:00etan, Jesus Atxak *Errepublikara garaiak eta Franco garaiko ikastolak Nafarroan* hitzaldia emanen du. Garaiko argazkiak eta eskola liburuak erakutsiko ditu Atxak.
- **Iruñea:** Pedro Pastor idazleak *Pasion de albañil* bere liburua aurkeztuko du, asteazkenean, Irufeko Kutxako hitzaldien aretoan, 20:00etan.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gaur bukatzen da

Gazteriaren Etxeko ikastaro hauetan izena emateko epea, 22:00etan: aerobik, funky / hip-hop, flamenko, dantza latino, areto dantza, margoketa, makillajea, gorputzaren lantzea eta helduen psikomotritate, masajea eta astrologia. Informazio gehiago 948-233512 telefonon.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Igandea arte ikusgai dago, Kultur Etxean, Nafarroako Miniaturisten Elkartearen erakusketa.

► **Iruñea:** Clemente Bernad argazkilaria *Mujeres sin tierra: mujeres del Sahara* erakusketa urtarrilaren 16 arte ikus daiteke. Gotorlekuko bolborategian.

► **Iruñea:** Hilaren 16a arte ikus daitezke, Lacava galerian (Eneko Aritza, 24), Eva Morant artistaren margolanak.


► **Lizarran:** Gustavo de Maeztu museoan, Nicanor Pifole margolariaren omenezko *Un intercambio artistico* erakusketa ikusgai dago, urtarrilaren 30 arte.

► **Iruñea:** *Gure aitona-amo-*

nen haurtzaroa erakusketa Hezkuntza departamentuko klaustro-gaineko galerian ikus daiteke (Santo Domingo z/g), lanegunetan (goizetan), otsailaren 20 arte.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Hilaren 31 arte aurkez daitezke sex Haizegoak antolatzen dituen Narrazio Labur Erotikoen V. Lehiaketarako eta Pintura Erotikoen III. Lehiaketarako lanak. Informazio gehiago 948-154231 eta 948-177299 telefonoetan.



Etixerat!! jaialdia

Baztanen, Eskual Herriko bertze hainbertze tokitan bezala, euskal presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen hainbat giza talde bildu ziren, Baztan herri ekimena izenpean, eta bihar jaialdia egingen dute Elizondon, Baztan pilotalekuan, 18:00etatik aurrera. Jaialdi horretan Baztango hainbat artistak parte hartuko dute: Baztango dantzariak, Pottoka, Gorramendi-10, Baztango kirkoketa-txalapartariak, Bittor Elizagoien, Mikel Aitzuart, Amairuko kantariak, Akordeoi orkestra eta trikitilariak. Bertzalde, eskualdeko hedabideek ere euren laguntza emanen dute. Xaloe telebistak, bideo proiektore erraldoi baten bidez, bere erreportaiak erakutsiko ditu, eta Xorroxin irratiak, jaialdia aurkezteaz gain, zuzenean zabalduko du. Jaialdiko kartela eskualdeko hainbat margolarien lana da.